

Igorreko Udalak Gazte Topaketak 2012 antolatu ditu abenduan

12. orrialdea

Baque Txapelketa irabazi dau Ekhi Ziarrusta dimoztarrak

Ziarrustak Cafes Baque XXVII. Txapelketearen finalean partidu sano ona jokatu eban eta pronostikoen kontra, irabaztea lortu eban izen handiko txapelketa honetan. 10-0 galtzean hasi zan arren 20-22 irabazi eban partidua. Iurretako frontoia leporaino bete zan. **10. orrialdea**



Nik Khaos talde arratiarrak disko barria atera dau

13. orrialdea

begitu ^{TOKIKOM} 10 urte

arratia ubide zeberio

176

2012ko abenduaren 18a
hamabostekaria
www.begitu.org

Materia organikoa birziklatzeko premia eta oztopoak berbabide

Zaborra kudeatzeko moduak eragin handia dauka ingurumenean eta osasunean. Izan be, urak kutsatu edota toxizidade handiko partikulak sortu daitezke. Europako Zuzentaruak hala eskatuta hasi dira gurean be materia organiko gitxiago erooten zabortegetara. Horretarako, mankomunidadeak edukiontzi marroia ipini dau.

Ekologistak Martxan-eko Roberto Galdos egon zan Igorren zemendiaren 30ean eta, honen ustez, zaborrak etekin ekonomikoak emoten deutsez erraustegi eta zementu fabrikai eta hori oztopo bat da zero zabor politika baten bidean.

Materia organiko hori batzeako eredu bi dagoz: atez atekoa eta edukiontzien bidez. Atez atekoagaz

% 80 birziklatzen dala dinoe ekologistak, Galdosen ustez "errezagoa dalako" baina edukiontziak populazio osoari eta sukaldatutakoa be sartu ezker, antzeko portzentajera heldu daitezkezala dino.

Zaborra erretzearen kalteak be izan eban berbabide Galdosek. Horren barri hurrengo zenbakian emongo dogu. **8. eta 9. orrialdeak**



Roberto Galdos, eskoiean, Igorre Bizirik taldeko kide bategaz.

ARRATIA

Elikadura Subirautzaren gaineko Topaketak Igorren hilaren 22an

Igitie Baserritar Agroekologikoen alkarteak, Elikadura Subirautzaren gaineko II. Topaketak antolatu ditu Igorren abenduaren 22rako. Azoka bat be egongo da goizean eta han Arratiako baserritarren eta artisauen produktuak egongo dira salgai. **5. orrialdea**



ARRATIA

Gabonetan danerik gurean

Gure eremuko 10 herrietan Gabonetan antolatu diran egitarauak dakarguz sasoi honetan beti egiten dogun lez. 100 ekintza inguru. Olentzero da herririk herri egingo dan ekintza eta hortik aurrera danerik topau leiteke. Herrietakoez gainera, Lemoako eta Areatzako gaztetxeen programa opa-roak be badakarguz orriotara. **6. eta 7. orrialdeak**

LEMOA

Cementos Lemonako beharginak kaleratze gutunak jasoten hasi dira

Cementos Lemonak 33 behargin kaleratuko ditu, EEEaren ondorioz, eta honeek hasi dira kaleratze gutunak jasoten. Enpresa Batzordeak hau egiteko modua salatu dau; izan be, "burofax bidez" eta ezelango erispide barik egiten dabiz kaleratzeak. **5. orrialdea**

Olaetxe OPTIKA ZENTRUA

Sabno Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)

94 657 70 03 olaetxeoptika@hotmail.es

- Graduazinoak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gitxitua
- Begiko tentsinoa
- Lentillen adaptazinoa
- Kiroletarako betaurrekoak

KANTU HERRIKOIAK**DAMA POLIT BAT BILATZEN**

(Labayru Ikastegiko Agozko Artxiboa)

Gaubetu baten joan nintzala dama polit bat bilatzen, atea kos-kos jo nion baia ez eustan korresponditzen.

Halangoen baten bentanatan: –Majoa zer nahi zenduke? –Gaur bioren borondatea balitz gaur biok lo eingo geunke.

Aite neuria tabernatik de amagaz lo ein gure neunke, ama zuria lotararteon atean ongo nintake.

Abenduko gau, gau luzia da hotzak galduko zendukez, nire tapia, tapa zabala biok batuko geintakez.

Aite neuria datorrenian okasiñua genduke, hak bat esan da guk bi kontestau okasiñua genduke.

Ai morenatu graziosia atakiosa zagoz zu, atakiosa bazagoz bere harrapatuko zaitut zu.

Neure atiak kisketa zoli txakurrek ere zelatu, nire atia zabalduke eper bizie behozu, eper bizie harrapatzeko mutil mantsoa zara zu.

Ni mutil mantsoa banona bere hi panaderuen alaba, ogi zuriten jango [g]enduke Donosti eta Alaba. Arda zuriten edango [g]eunke Errioko kanala.

Zubi txiki bet pasatu eta dago neronen etxia, borondatia deukenentzako ez dago bide luzia, borondaterik ez badekozu adios neure maitia.

Dama polit bat bilatzen

Iturria: Eduarda Bilbao Etxebarria (Dima 1905-Arantzazu 1988).

1982an, Arantzazun, Karmen Bernaolak jasoa.

TELEFONO INTERESGARRIAK**Larrialdiak**Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112**Guardiako Farmaziak****09:00etatik 22:00etara**
Abenduaren 17tik 23raZamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22**22:00etatik 09:00etara**

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.

Abenduaren 24tik 30eraBadiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11**22:00etatik 09:00etara**

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Abenduaren 31tik urtailaren 6raTraver. Bedia. J.A. Agirreren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50**22:00etatik 09:00etara**Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.**Urte osoan****22:00etatik 09:00etara**

Carazo. Karmelo Torre kalea 12. Basauri.

Medikuak**Arantzazu:** 94 631 56 89**Artea:** 94 673 92 11**Areatza:** 94 631 71 52**Bedia:** 94 631 34 13**Dima:** 94 631 56 30**Igorre:** 94 600 74 63**Lemoa:** 94 631 31 16**Ubide:** 945 45 03 61**Zeanuri:** 94 673 91 49**Zeberio:** 94 648 20 79**Udaltxeak****Arantzazu:** 94 631 56 89**Artea:** 94 673 92 05**Areatza:** 94 673 90 10**Bedia:** 94 631 42 00**Dima:** 94 631 57 25**Igorre:** 94 631 53 84**Lemoa:** 94 631 30 05**Ubide:** 945 45 03 22**Zeanuri:** 94 673 91 46**Zeberio:** 94 648 10 79**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Go-beialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Go-beialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua
22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-ZeanuriLanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era
orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-BilboLanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara
30 minuturo, azkenengo 22:15ean
Galdakaoraino.Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30
minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean
Galdakaoraino.**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era
30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-BilboUbidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:
06:45etik 20:45era bi ordurik behin.Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik
behin.**Otxandiotik urteerak:**Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era
orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-UbideLanegun, zapatu eta jaiegunetan,
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.
Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.**Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)**Lanegunetan: 07:00etan lehen, eta 08:15etik
21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.
Zapatu eta jaiegunetan ez dago
zerbitzurik.**Artea-Bilbo**Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta
20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-ArteaLanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.
Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-BilboLanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15
eta 17:45.Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,
14:15, 17:15 eta 20:15.**Bilbo-Zeberio**Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15
eta 16:45ean.Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40,
16:40 eta 19:40ean.**La Union* 94 427 11 11****Bilbo-Gasteiz**Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan
dau eta Otxandioakoak 16:00etan.Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta
16:30ean urtetan dau Bilbotik.Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau
eta Otxandioakoak 18:30ean.**Gasteiz-Bilbo**Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta
16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan
dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan
dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.**Telefonoa:** 94 631 73 14.**Helbide elektronikoa:** begitu@topagunea.comwww.begitu.org**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.**Kudeatzailea:** Inigo Iruarrizaga.**Erredakzino taldea:** Oihane Barrenetxea, Urtzi Barrenetxea, Julen Bilbao, Aitor Erdozia, Clara Luja Azpiri, Cristina Ruiz eta Irati Urien.**Maketazinoa:** Inigo Iruarrizaga.**Publizitatea:** Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.**Banaketea:** Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Alai Ozerinjaregi eta Iratiz Sagarna (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).**Tirada:** 6.600 ale.**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.600 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoaBilko Fono Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

bbk

ZEURE BERBEA

Igorre, legerik bako herria

Pasa dan zehazkiaren 30ean 20:00ak inguruan, adarjotzaileren batek semearen autoa hondatu eban eta jakin gurako neuke nor izan zan. Inork zeozer ikusi bae-ban ipini daitela kontaktuan BEGITU Aldizkariagaz, "bromazalea" daturik itxi barik joan zan eta. Zergaitik? Ez dauka asegururik ala broma bat egitearren izan zan?

Espero daigun alkateak neurriak hartzea kontu honetan, Igorren dana libre dala emoten dau eta: autoak apurtu (hau bigarrena da); txakurrak gura daben lekuan egiten dabe kaka; igongailuak eta komunidadeko eskailera negozioren aurrean ipinten dira; bakotzak gura dauan lekuan aparketan dau, autoridadeak be bai, eta gauza gehiago.

Espero daigun honek amaiera bat edukitea eta isun gehiago ipinten hastea. Ez legoke txarto kaleetan kamarak ipintea eta herrian zaintza handiagoa egotea.

Autoa Olabarriko parkinean hondatu eben.

* Erredakzinoan itzulua

MIREN ITXASO ATUTXA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Mokol



Udagoienean eta neguan jaten doguzan frutu batzuen azala gogorra izaten da, barruko garua hobeto babesteko. Arratian, intxaur edo gaztainearen azalari mokol, oskol eta koskol berbak esaten deusaguz. Ahoskatuta, mókola, óskola... Horrezaz ganera mokol/oskol/koskol dira: arrautzeak daukan azala (arrautza-mokol, esate baterako), edota animalia batzuen (karakola, dortoka) estalgi babesgarria.

ERETXIA

Alkar ulertutera kondenauta



NINO ZELAIA

Sueti Calli alkarteko presidentea

Euskal Herriak eta ijitoen herriak biak sufridu dabe asko eta ordua da euskaldunak eta ijitoak alkarregaz lan egin daigun. Sueti Calli berbak "ijitoen mundua" esan gura dabe eta alkarte hau batez be ijitoai zuzenduta egon arren, atek zabalik daukaz gure herria hobeto ezagutu gura dauan edonorentzat. Alkarteak Basauritik Orduñara hartzean dau, Nerbioi-Ibaizabal eta Arratia barne eta eremu honetan 800 ijito baino gehiago bizi gara.

Sueti Calli alkartearen helburuetako bat gure kultura ezagutzera emotera da. Horretarako udaletxeokaz egin dogu berba alkarlanean gauzak egiteko. Zeberion Euskal Ijitoaren Egunean ijitoen historiaren gaineko berbaldi bat emon eta beste ekintza batzuk antolatu genduzan. Hau udal askotan planteau dogu eta batzuk geugaz lan egiteko prest dagoz eta beste batzuk ez. Gure kultura ezagutzera emon gura dogu, gure herria sano ezezaguna dalako eta jenteak aurreretiak gaintitu daiazala gura dogu.

Kultur ekintzak eta gizarte ekintzak planteetan doguz: Lanbidek eskeintzen dituan ikastaroak gure lokalean, Ugaon, egiten doguz, hemengo jenteak Basauriraino joan behar ez izateko; papalak egiten be lagunduten deusaguz jenteari, baten bateri kondenata bat ezarri badeusie eta lan komunitarioa egin behar badau, ba gure lokalean lan eginda kentzean ditu kondenako egunak... Justizia, Hezkuntza eta Ongizate arloetan egiten dau behar Sueti Calli alkarteak.

Hamabi urte dira Zeberion bizi nazala baina adiskidetasun hartu-emonik ez daukagu zeberioztarrakaz. Ijitoak fama txarra daukagu eta beti gagoz susmo-pean. Baina jenteari galdetu

ezkero zenbat ijito bizi dira bere herrian ez dau jakiten zer erantzun, gehienak zarata egin barik bizi dira eta. Ijito gehienak lana egin ondoren, etxera joaten dira eta kitto.

Ez da bizimodu nomada zane-ko sasoian legez. Orduan gurdia eta zaldia ikusten ziran, jentea beste modu baten janzten zan eta ijitoak diferenteak irudien.

Euskal Herriak eta ijitoen herriak alkar ulertuteko esfortzuak egin zituen sasoi baten eta horren lekuko da *erromintxela*. Gure hizkuntza zaharra rom edo romania da eta hau munduko ijito guztiakaz erabili ahal dogu, baina bariante batzuk dagoz eta romani eta gazteleraren artean caló-a sortu zan. Ijitoak Frantziara joakeran, eta muga tratuak egiteko, ijitoen hizkuntzea euskereagaz nahastu zan, *erromintxela* sortuz. Gaur egun ia desagertuta dago. *Erromintxela* Etxeberriak, Etxepare eta Iparraldeko beste ijito batzuk egiten eben. Gainera, euskeraren sintaxia eta romaniarena antzekoak dira.

Argi dago herri bi honeek alkar ulertutera kondenauta dagozala. Sueti Callin saiatzen gara holan izan daiten.

* Erredakzinoan itzulua

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Tomea auzoa, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrea beharrez,
euskeraz eginez

Enbata
Batzen gaitu

MONDRAGON
INDUSTRIAL CORPORATION

LUMATUTEN



JANIRE LOPEZ

Bazter batean belaunikatu naz hamaikagarrenez biluzik dar-dar batean
bikote ederra osatzen dogulako orduko NIK eta oraingo ZUK
Besoen artean izterrak bildu eta uzkurtu egin naz,
belaun urratuak malkoek bustita

Korapilatuta, matazatuta,
haril borobila naz orain
eta biraka narama
gupidagabe
haizeak
99
98

Eskuen artean gogor estutu eta irentsi egiten zatut denboraz kontrarako bidean
Bikote ederra osatzen dogulako, orduko ZUK eta oraingo NIK
baina ke zaharraren zaporea hartu deusut oraingoan be
semaforoak gorritik laranja,

laranjatik berdera
sagu-begi
azal zuri
96
95

Susmoa dot daborduko ez nazela gaztea, edo okerrago, agian bai
eta bikote ederra osatuko dogula oraingo NIK eta geroko ZUK
baina zorabiatuta heldu naz zure ataripera
eta korapiloak estuegiak diran hontan

zure atea jo ahal dot
baina sobera dakit
ordu honetan
lo egoten
zarela

ZERTZEAN



IÑAKI ITURRIOTZ

Gaia jarrita: "Olentzero maitea"

1

Eskatu neike playmobil Zoo
hello kitty zein Barbie-a
paga bikotxa aldundietan
nahiz Herrira-ren saskia
eskatu leike hiru DS
new Super Mario Bros Wii-a
kultur etxeko bazkide egin
edo trivial pursuit bi-a
Benitok letxe askatasuna
justizia ta egia
Asus tablet-a osoa ezin
bada gitxienez erdia
ezetako be balio ez dauan
boskarren zabor ontzia
edo garena maitatu daigun
Arratiera hiztegia.

2

Eskatu neike alderdi baten
neu izatea sortzaile
little big planet, Sing Star guitar
sport Ferrari challenge
eskatu al da MHLZ bat
pictionary ta scrabble
zein George kluni-ren nespresso baltza
zazpi euroan lau kafe
tal kual leiduta guk aituteko
Lancome-n O de toilette
aldats goretan berez dabilen
spezialized venge
dana danean notizia ta
ezer gitxi nobedade
eskatutea librea bada
ezer ez ekarte be.

Doinua: Martxa baten lehen notak
(Mikel Laboa)

BEGI TXINDORRA

Bost mila lagun inguruk bete eben Miribillako Bilbao Arena pabilioa Bizkaiko Bertsolari Txapelketea ikusteko. Hiru puntu baino ez eutsan atera Estiballes txapelkunak Elortza bigarrenari eta saio ederra izan zan finalekoa. Emozinoak 5.000 bider biderkatu ziran bertso biribil bakotxean.

Horregaitik, sano gatxa da pentsetea saioa hasi aurretik espazio handi ha hutsik egon zala eta isiltasuna nagusi izan zala bertan. Baina bat-batekotasunak aurretik lan handia behar dau, jente askoren lana eta alde aurretiko isiltasuna, bakea, sosegua eta pentsamentua.

Bertso saioetan eta bizitzan pentsamentuak gidatu behar ditu emozinoak eta. Zortziko handian, txikian zein neurri librean.




Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
 Ureztaketa instalazioa
 Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
 Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
 Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
 gorosti@gorostiscl.com


Ortodontzia
 Inplanteak
 Estetika
 Marina Urigoitia Aidedko
 Odontologo
 Bidebarri 1, behea
 48140 Igome-Bizkaia
 T. 94 631 50 39
 Nafarroa Zirkuluak MD
 R.P.S. 25/06


JANDONIZ
 nagusientzako etxea
 residencia para mayores
 Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

ARRATIA

Elikadura Subirautzaren gaineko II. Topaketak

Erredakzioa

Igitie Baserriar Agroekologikoen alkarteak, Elikadura Subirautzaren gaineko Arratiako II. Topaketak antolatu ditu abenduaren 22rako. Jatekoa persona guztientzat eskuragarri egotea oinarritzeko eskubidea dala eta elikadura subirautzaren alde egiten dabe Igitie alkarteko baserriarrak. "Elikagaien ekoizpena eta elikagai horreen konsumitzailea ahal danik eta hurbilen egon behar dira, aztarna ekologikoa murriztuteko eta baita auzune eta herritarren arteko hartu-emonak indartu eta konfidantza sustatuteko" dinoe.

Abenduaren 22an Igorren 105 eta Garbe arteko parkinean egingo dira topaketa honeek, helburu argi bigaz, "herrigintza eta alkar ezagutzea".

Baserriko produktuen azokea

Goizean azoka bat antolatuko da eta han Arratiako baserriar gazteen eta artisauen produktuak egongo dira salgai. Umeentzako txoko bat be egongo da Zaztarrak taldearen eskutik.

Eguerdian, elikadura subirautzaren etorkizun hurbileko erronken barri emoteko berbaldi

bat antolatu dabe Igitie alkartekoak eta gero, ordu bietan, "asamblea zabal eta orokor baten parte hartzeako aukerea egongo da. Bertan hilabete honeetan zehar beharreen ibili diran bost lan-taldeen barri izango dogu: ekoizleak, eskola-jantokiak, formakuntzea, lur-boltsak eta merkaturatzea, hain zuzen be. Lan-talde honeek ekoizleak, konsumitzaileak eta batez be, herritar konprometiduz dagoz osotuta" azaldu dabe antolatzaileak.

Ostean baba-jana eta "giro ederrean berba egiteko" aukerea egongo da. Egunean zehar truke azokea be egongo da.

Kartela.

ARRATIA

Fracking-aren kontrako mozinoak aurkeztu dabez Arratiako herrietan


Erredakzioa

Arratia Bizirik Arratiako udal-letan mozino bat sartu eban hilaren 14an, "Udal gobernari jarrera aktiboa" hartzeako "fracking-etik aske dagoan udalerria izentatzeko eta "Fracking ez" seinalea udalerrira sarreran" ipinteko eskatuz. Mozino hau Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorren, Lemoa, Zeanuri eta Zeberion aurkeztu zan.

Mozinoa aurkezteaz gainera, abenduaren 12an, teknika honen gaineko azalpenak emoten zituaren berbaldi bat egon zan eta 13an, bideo emondia. Hau danau, Eusko Jaurilaritzak Saia baimena emon ebanaren hurrengo astean. Saia baimenak bete-betean harrapatzen dau Arratia.

Fracking edo haustura hidrau-

likoa sakonera handietan eta arroka iragazkaitzetan itsatsita egoten dan gasa ateratzeko teknika da. Teknika honek "lurrak suntsitu, urak kutsatu eta gizartea eraldatzen dau" Mikel Otero Fracking Ez Arabakoaren arabera.



Saia, Lore eta Mirua Arratian.

LEMOA

Cementos-eko beharginak greba mugabakoari ekin deustie

Erredakzioa

Cementos Lemoako beharginak kaleratzeko moduak salatu zituen hilaren 14an prensaurreko baten. "Burofax bidez eta ezelango erispide barik" Jabi Amorrortu Cementos Lemoako Enpresa Batzordekoaren arabera. Cementos Lemoa SAK 33 behargin kaleratu ditu Iraungitzeko Enplegua Erregulatzeko Espedientearen bidez. Beharginak greba mugabakoari ekin deustie.

Cementoseko beharginak martitzen, eguen eta zapatuetako lan-ixteai itxi eta greba mugabakoari ekin eutsien hilaren 5ean. Izan be, beharginen batzarrean demagoritzeko kaleratzerik gertatu ezker, greba mugabakora joko ebela ebatzi eben. Honeen ustez, "Cementos Lemoa lango enpresa batentzat ez dago industria egitasmo jasangaririk 29 behargin gitxiagaz (4 aurre-erretiratu dabez errelebo kontratuakaz)" eta EEEn neurri gogorrenak ezarri deustezala salatu dau Cementos Lemoako Enpresa Batzordeak.

Hau holan, greba mugabakoan eta kanpaldian jarraituten dabe beharginak. Honeetan eta egingo dabezan mobilizazio guztietan "demagoritzeko kaleratzerik ez eta enpresearen



Amorrortu Lemoan emondako azken prensaurrekoan.

salerosketearen gaineko etenbako zurrumuruak dirala eta, Cementos Lemoaren jaubeagaz alkarizketa bat eskatzen" dabe beharginak.

Kaleratze gutunak

BEGITUREN iturrien arabera, beharginak hasi dira kaleratze gutunak jasoten. Hau idatzeko momentuan, hiru behargin gehiago ziran gutun hau jasotekoak, baina nortzuk izango ziran ez ekien. "Zazpi personako departamentu baten, esaterako, bat kalera joango dana badakie beharginak, baina ez nor izango dan. Kaleratze gutuna heldu arte, beharginak ez dakie kalean geratuko diran ala ez. Eta horrek estres handia sortzean dau" azaldu deustie BEGITU Cementoseko

behargin baten familiako batek.

Amorrortuk uste dau enpresek kaleratzeak holan egiten dituala beharginak zigortuteko.

Negoiazino prozesua "legez kanpokoa"

Kaleratze honek suposatzen dituan EEEn negoziazino ez dala legezkoa izan salatuten dabe behin eta bariro Cementos Lemoako Enpresa Batzordekoak. Izan be, Cementos Portland Valderivas taldeak eta UGT, CCOO eta USOn artean adostu eben EEEn hau eta sindikatu honek ez daukie ordezkariarik Lemoako lantokian. Beharginak Madrilko Lan Agintaritzan salatu dabe hau, negoziazino prozesua legez kanpo dagoalakoan.

ARRATIA

Herritarrak, merkatariak eta aisialdi alkarteak euskerea bultzatuko dabe

Euskera Egunean Dima, Igorren eta Lemoan euskerea erabilteko konpromisoak eta hitzarmenak sinatu zituen herritarrak eta alkarteak. Diman, udal iturrien arabera, 242 konpromiso sinatu ziran eta eskolan 93 familiak sinatu eben euskerea erabilteko konpromisoa. Igorren 41 establezimientuk eta Lemoan 9 alkartek sinatu eben hitzarmena Udalagaz.

Erredakzioa

Dimako ekitaldia alkatearen agurragaz hasi zan. Gero Dima 200 bideoa ikusi eta Euskera Bazardearen agirira irakurri eban batzordekide batek. Ondoren, talde eta banakako batzuek euren konpromisoak irakurri ebezan eta oroigarriak banandu ziran. Herritarren konpromisoak kutxa baten sartu ziran. Umeak "Euskaraz bizi nahi dut" jantzaldia egin eben eta bertaratutako guztien argazkia egin zan. Txokolata janean amaitu eben ospakizuna.

Igorren, 41 establezimientuk euskerearen erabilera eta presentzia

bultzatuteko eta araututeko hitzarmena sinatu eben Udalagaz batera. Hiru urteko iraupena eukiko dau hitzarmenak, eta irudia eta errotulazino, agozko harremanak, eta barneko funtzionamentua ikututen dauz. Hitzarmen sinaketan Beinke, merkatarien euskera taldeak bere ibilbidearen barri emon eban. Hitzarmena sinatu eben establezimientuen txandea izan zan gero, horretarako prestatu zan bideo baten. Hitzarmen sinatu eta ekitaldiari amaierara emoteko bideoaren toma faltsuak ikusi ahal izan ziran.

Lemoako ekitaldian aisia, kultura eta kirol alkarteak Hitzarmen Orokorra sinatu eben Udalagaz

euskerearen erabilerearen normalizazioan aurrerapausoak emoteko. Hasierako agurraren ostean, hitzarmengintza prozesuaren nondik norakoen barri emon zan, egitasmoaren zergatiagaz batera. Hitzarmen Orokorren sinaketea gauzatu zan ondoren, Udala eta Hazi eta Hezi Akademia, Zaztarrak taldea, Ganzabal Mendi Taldea, Esku Pilota taldea, Harrobi Futbol Kluba, Lemoako Abesbatza, Durundi Barri jantza taldea, Keramika Taldea eta Harriketarrak Gazte Asanblada alkarteen artean. *Bua Txaball!* bakarriketeagaz jarraitu eban saioak eta mokautxo bategaz amaitu zan ospakizuna.

ARRATIA

Olentzerori itxaroten dagoz Arratiako umeak

Erredakzioa

Arratiako umeak Olentzerogaz disfrutatuko aukerea izango dabe Gabonetan. Izan be, Arratiako herri guztietan, Ubiden eta Zeberion Olentzero kantetan urtengo dira ume zein nagusiak eta Olentzerogaz egoteko aukerea egongo da. Bedian eta Igorren Errege Kabalgatea be izango da urtailaren 5ean.

Gabonetan olgetako denpora gehiago daukie umeak eta Gabonetako Umeen Parkeak eta tailerrak antolatuko dira hainbat herritan. Ludotekak zabalik egongo dira goizetan abenduaren 26, 27 eta 28an eta urtailaren 2 eta 3an.

Kultura eta kirol eskeintza zabala

Persona nagusiak be Gabonak disfrutatuko aukerea eukiko dabe, gurean kultura eta kirol eskeintza zabala dago eta. Holan, tradizino dan lez, Areatzako Bandak kontzertuak emongo dauz Areatza eta Igorren, eta Bedian Arratiako Musika Eskolakoak izango dira eleizan kontzertua eskeiniko dabenak. Urte amaierako lasterketetan parte hartzeako be aukerea dago. Igorren mozorroak jantzita San Silbestre lasterketea egingo dabe umore onean eta Lemoan Eneko Zamalloa memoriale izango da.

Zinea, antzerkia, pelota partiduak... eta Zeanurin auzoen arteko herri kirol desafioa.

DIMA

Abenduak 23, domekea
12:00etan, liburutegiaren berri-naugurazioa.

17:00etan, ipuin kontaketea *Ni ez naiz Olentzero* 4 eta 12 urte bitarteko umeentzat.

18:00etan, ilustrazio tailerra.

Abenduak 24, astelehena
17:30ean, Olentzero kantetan joango dira herritarrak.

Abenduak 27, eguena
17:30ean, Musika Eskolako Gabonetako jaialdia ludotekan.
19:30ean, Genero tailerra.

Urtailak 2, eguaztena
17:00etan, zinea *Olentzero* filma ludotekan.



Etzera joan eta bertakoak taloak jan. Trikitilariak egongo dira.

Abenduak 24,
09:30ean, Olentzero kantetan auzorik auzo.

12:30ean, Olentzero umeak egongo da plazan. Gaztainajana.

Urtailak 3,
10:00etan, Gabonetako Umeen Parkera urtekerea.

IGORRE

Abenduak 19, eguaztena
19:00etan, Arratiako Musika Eskolako ikasleak Lasarte Aretoan.

Abenduak 21, barikua
18:00etan, sexualidadeari buruzko zineforuma *Krampack* filma. Ondoren, berbaldia Karlos Juste Bezain sexologia zentroko zuzendariagaz. Lasarte Aretoan.

Abenduak 22, zapatua
Goizean, pelota jokoak umeentzako Imanol Agirregaz frontoian.
19:00etan, pelota partidu profesionalak: Markina-Koka/Zilaurren-Izei eta Agirre-Otxandorena/Mikel Goñi-Galarza VI.
Elikadura Subirautzaren aldeko Arratiako II. Topaketa. 105eko parkinean. Truke azokea be egongo da.

Abenduak 23, domekea
18:30ean, jantzialdia Arantzarte Dantza Taldea Lasarte Aretoan.

Abenduak 24, astelehena
17:00etan, Badator Olentzero danok kantetan Mikeletik.

Abenduak 26, eguaztena
20:00etan, Zeaniko Antzerki Taldea *Hiru apurtute, bat urrutute* Lasarte Aretoan.

Abenduak 27, eguena
Gabonetako Umeen Parkea: Zaztaparrakentailerrak aterpean
11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era.

LEMOA

Abenduak 20, eguena
10:00etatik aurrera, gaztaina eguna ume eta gurasoentzat eskolan.

Abenduak 21, barikua
19:30ean, Gabon kanta-poteoa Arraibit Elizondora.

Abenduak 22, zapatua
17:00etan, Bizkaiko Esku Pelotako Txapelketako finalak.

Abenduak 24, astelehena
10:00etan, udaletxetik urtenda, auzorik auzo Gabon kantak. Salda eta txokolata Elizondon. Elizondo Kultur Gunean Olentzerogaz egoteko aukerea.

Abenduak 27, eguena
11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara, Gabonetako Haur Parkea Lemoako kiroldegian.
18:00etan, ikuskizuna *Disko Latxa*.

Abenduak 28, barikua
19:00etan, magia poteoa Txoborro magoagaz. Elizondoko goiko tabernatik urtenda.

Abenduak 31, astelehena
16:30ean, Eneko Zamalloa me-

Abenduak 28, barikua
20:00etan, zinea *Barrura begiratzeko lehiak*. Ondoren zuzendarietako batek berbaldia emongo dau.

Abenduak 29, zapatua
11:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara, puzgarriak ugerlekuan. Egun osoan, Kaleko kulturen jaialdia eskolako aterpean.
19:30ean, Luis Iruarizaga eta Pizpillu Abesbatzak kontzertua Lasarte Aretoan.

Abenduak 30, domekea
19:00etan, film laburren lehiaketaren sari banaketea Lasarte Aretoan.

Abenduak 31, astelehena
V. San Silbestre lasterketea. 11:00etan, izen emotea. 11:30ean, hasikerea.

Urtailak 3, eguena
Gabonetako Umeen Parkea: Motxogangen tailerrak 11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era aterpean.



ARANTZAZU

Abenduak 21, barikua
Olentzeroren oparia hartzeako udaletxean izena emoteko azken eguna.

Abenduak 28, barikua
11:00etan, Gabonetako Umeen Parkera urtekerea udaletxetik.

ARTEA

Abenduak 24, astelehena
17:00etan, Olentzero abestera.

Abenduak 27, eguena
17:30ean, ipuin kontalaria ludotekan.

BEDIA

Abenduak 16, domekea
Gangurenak antolatutako turroi eguna. Bediako frontoian.

Abenduak 18,
19:00etan, Arratia Musika Eskolearen kontzertua eleizan.

Abenduak 20,
17:00etan, taloak egin liburutegian.
18:00etan, Jandoniz Nagusien

IGORRE/ZEANURI

Auzo batzarretako proposamenak daroaz Bilduk aurrekontuetara

Erredakzioa

Igorre eta Zeanuriko Bilduk aurrekontu parte-hartzaileen auzo batzarretan oinarritutako proposamenak eroango dabezala 2013ko aurrekontuetara agindu dabe.

"Igorren urrietan egindako auzo batzarretan herritarrak emon jakien berbea" dino Bildu Igorrek. "Sei auzo batzarretan 120 lagun batu dira aurtan be, eta guztira ehunetik gora izan dira egin diran ekarpenak. Eskariak auzoketa eta gaika banandu ostean, Bilduk aztertu eta egungo egoera ekonomikoan egingarriak diran obrak eta hobekuntza lanak mahai gainera aterako ditu". 2013an erakundeetatik

etorriko diran diru murrizketak Igorren ahalik eta gitxien eragitea gura dabela dino Bildukoak.

Aurrekontu parte-hartzaileak Zeanurin

Zeanurin be auzo batzarretan egin ditu Bilduk "aurrekontuak parte-hartzaileak izateko". Zazpi batzar egin dira guztira eta beste batzuen artean, kale argien, udaletxeko ibilgailuen, edo arkitektoaren soldatearen gaineko proposamenak egin zituen parte hartu eben auzotarrak. "Orokorrean, herritarrak erreta sentidutan dira eta modeloa aldatutako eta auzolana egiteko prest dagoz" Zeanuriko Bilduren arabera.

AREATZA

Abenduak 21, barikua
18:00etan, Bibiñe Pujana ipuin kontalaria parketxean.

Abenduak 24, astelehena
17:00etan, Olentzeroren etorreare herriko plazan.

Abenduak 26, eguaztena
11:00etan *Idazlea zu zara* antzezlan ludotekan. 12:30ean bigarren pasea.

18:00etan, argazki lehiaketaren erakusketea eta sari banaketea ludotekan.

Abenduak 30, domekea
19:30ean, Areatzako Bandaren urte amaierako kontzertua eleizan. Amaieran, Areatzako Eder umearen aldeko zozketea egingo da (Gabon otzarea eta biaje bat).

Urtailak 3, eguena
20:00etan, *Gazta zati bat* dokumentalaren proiektzioa udal aretoan.



moriale. Lemoako II. Gabonetako lasterketea.

Urtailak 3, eguena
10:30ean, Gabonetako Umeen Parkera urtekerea ludotekan.

UBIDE

Abenduak 22, zapatua
16:30ean, Olentzerori gutuna eroateko urtekerea.
18:00etan, txokolata plazan.
19:00etan, Toni la Sal: *Birusak erasoan*.

Abenduak 24, astelehena
Olentzeroren gaua.

ZEANURI

Abenduak 20, eguena
19:00etan, Yolanda Jubetoren berbaldia, "Emakumeak krisiaren biktima ikusezinak". Medikuetxean.

Abenduak 21, barikua
17:00etan, talo tailerra.
19:00etan, talo jana euro baten truke. Trikitilariak giroa alaituko dabe. Eguraldiaren arabera, plazan edo Kultur Etxearen aterpean.

Abenduak 22, zapatua

16:30ean, Arratia Nerbioi txapelketako herriko umeen pelota partiduak. Jarraian, herriko nesken pala partiduak Ibarreta frontoian.

Abenduak 23, domekea

18:00etan, Segaren inguruko berbaldia Irati Astondoaren eskutik. Kultur Etxean.

Abenduak 24, astelehena

17:00etan, Olentzerori harrerea Piedadean. Ondoren, frontoira jaiatsi-errea. Herriko txistulariak eta Musika Eskolako umeen korua, trikitilariak eta gitarra ikasleak Olentzerori lagunduko deusie. Gaztaina jana eta gozokien banaketea.

Abenduak 26, eguaztena

17:00etan, zinea *Limite Vertical* filma. **19:00**etan, Pedro Lejarzaren berbaldia "Gorbeiatik Montblanc-era Josu gogoratzuz" Kultur Etxean.

Abenduak 28, barikua

19:00etan, Zeanuriko II. Ipuin lehiaketaren sari banaketea. Ondoren, gaztetxoentzako literatur saioa.

Abenduak 29, zapatua

17:00etan, Auzoarteko herri kirol desafioa Ibarretako frontoian. Gero XEROXIETE taldeagaz erromeria. Afarirako txartelak salgai jubiladuenean.

AREATZAKO GAZTETXEA

Abenduak 22, zapatua

22:30ean, Disk Breakers.

Abenduak 24, astelehena

Olentzero ostean kantu poteoa. **23:30**ean, Gabon Gau Jaia.

Abenduak 25, martitzena

18:30ean, Bingoa.

Abenduak 27, eguena

21:00etan, *Johnny eta Jane en carne viva* antzezlan.

Abenduak 28, barikua

22:30ean, kontzertua Eskean Kristo eta DJa.

Abenduak 29, zapatua

20:00etan, Euskal Selektzioaren partiduaren proiektzioa.

Abenduak 30, domekea

Azken afaria Laminetxe Gaztetxean.

Abenduak 31, astelehena

09:00etan, Gorbeia Lamino urtekerrea. Eleiz arkupetan. **17:30**ean, Futbito partidua frontoian. **19:30**ean, poteoa Motxonetik hasita. **00:00**etan, Gabon Zahar jaia.

Urtailak 3, eguena

19:00etan, postre lehiaketea.

ZEBERIO

Abenduak 19, eguaztena

19:00etan, *Annapurnako trekking*-a diaporama emonaldia udal-etxean.

Abenduak 21, barikua

17:30ean, balet ikuskizuna plazako aterpean. Zeberio eta inguruko herrietako ikasleak.

Abenduak 22, zapatua

18:30ean, Txanogorritxu Rock plazako ermitan. Austarik antolatuta. **20:00**etan, Zeberio V. Frontenis txapelketea. Zubialdeko frontoian.

Abenduak 24, astelehena

17:30ean, Olentzeroren etorrerea. Ermitabarrin.

Abenduak 28, barikua

18:00etan, eskupelota partiduak Ermitabarriko frontoian. Zeberio eta inguruko gazteak. **20:00**etan, Ermitabarriko merienda. Taloa danontzat.

Abenduak 29, zapatua

Euskal Selektzioa-Bolivia Donostiako Anoeta futbol zelaian.

Sarrerak eta autobusa udaletxean.

Urtailean Gabonetako Umeen Parkera txangoa.

LEMOAKO GAZTETXEA

Abenduak 21, barikua

Karabie ipuin kontalari eskolan.

Abenduak 22, zapatua

20:00etan, Xabi Solano eta DZ-ren (Esne Beltza) kontzertuak.

Abenduak 24, astelehena

18:30ean, Olentzero Gaztetxean.

Abenduak 26, eguaztena

18:30ean, Txatxamurke Eguna (Txatxa Dei) Todo o nada bakarlarria.

Abenduak 28, barikua

20:30ean, Miren Gaztañagak *Stereo* antzezlan.

Abenduak 29, zapatua

10:30ean, erreka garbiketean.

Abenduak 30, domekea

20:00etan, *Al son del punk* liburu eta dokumental aurkezpena.

Abenduak 31, astelehena

11:00etan, futbol partidua.

Urtailak 1, martitzena

19:30ean, Ugel txapelketea.

Urtailak 2, eguaztena

19:30ean, Gazte Asanbladen Gida lanaren aurkezpena.

Urtailak 3, eguena

18:30ean, *Kafe aleak* liburuaren aurkezpena.

ARANTZAZU

Gazte-plana eztabaidagai dago

Erredakzioa

Arratia Gaztedi programako teknikariak gazteen egoerearen eta lehenasun gainera diagnostikoa aurkeztuko dabe abenduaren amaieran. Proiektu hau mankomunidadeak eta Arratiako Udalak sustatzen dabe, eta batu dan informazioa 2013rako gazteentzako jardueren plangintza egiteko erabiliko da.

Horregaz lotuta, Arantzazuko abenduako plenoan, Bilduk proposatu eban diagnostiko hori erabiltea herrian ekimen propioak egiteko, Arantzazuko errealidadeari egokitutakoak. Hain zuzen be, oposizioan dagoan alderdiak planteau eban Foru Aldunditik jasoko dan diru-laguntzeagaz multzo bi egitea: bat,

mankomunidadeak gestionetan dauan Arratiako gazte-planerako bideratuko dana; eta bestea, herriko gazteak batera Arantzazun gazte-plan personalizaua eratzeko izango dana.

Halanda be, agintean dagoan EAJ-PNVk jarrera ezkorra eta oportunistea izatea leporatu deutse Bilduko zinegotziaz. Alkate andreak adierazo dau, azkenaldian gazteen eta Udalaren artean izandako liskarren ondoren, Bilduk momentu politikoa aprobetxau gura daua eta horregaitik egiten daua gazteen alde. Bestalde, plenoan EAJ-PNVk aitortu dau Arratia Gaztediren diagnostikoa aztertuko daua eta diru partida bat aterako



Arantzazu.

ARRATIA

Manifestazioa eta enkantea Herrirak antolatuta Gabonetan

Erredakzioa

Arratiako Herrirak hainbat ekintza antolatu ditu Gabonak dirala eta Arratian "Giza eskubideak. Irtenbidea. Bakea" lelopean. Aitagarriena urtero Gabon Zahar egunean Igorren egiten dan manifestazioa da, hau, 18:30ean urtengo da udaletxe paretik. Aitzekoa be abenduaren 29rako antolatutako enkantea Igorreko Axular Herriko Tabernan, 22:00etan. Enkante honen bidez batzean dan dirua "euskal errepresaliaduen alde" erabilten da. Herrirak urtailaren 12an egingo dan manifestaziora deitzen ditu arratiarrak be.

Hemen Arratiako Herrirak antolatutako programea Gabonak dirala eta:

Abenduak 24, astelehena

Badator Olentzero!

19:00etan poteoa Lemoako gaztetxeko parkinetik.

16:30ean Zeanurin udaletxea inguratu.

Arrastian Artean Iñaki, Edu, Tomas eta Ana etxera.

Abenduak 28, barikua

Azkenengo barikua.

18:30ean konzentrazioa Lemoan Intzuntzako bidekuruztean.

19:30ean konzentrazioa Igorren Kultur Etxe ondoan.

Abenduak 29, zapatua

22:00etan enkantea errepresaliaduen alde Axular Herriko Tabernan.

Abenduak 30, domekea

11:00etan Diman, Giza eskubideak, irtenbidea, bakea. Dima U12 bidean ekitaldia.

Abenduak 31, astelehena

18:30ean Igorreko udaletxetik urtenda manifestazioa. Ostean otzarearen zozketea.

Urtailak 4, barikua

19:30ean, lehenengo barikua Diman. Konzentrazioa plazan.



IGORRE

Gizon bat atxilotuta bikotekide ohiari eraso egiteagaitik

Erredakzioa

Abenduaren 12an Ertzaintzak 26 urteko gizonetzko bat atxilotu eban Igorren, ustez bikotekide ohiari jo egin ebalako. Herrizango Sailak jakitera emon ebanaren arabera, eraso gizonaren etxean gertatu zan baina andreak iges egitea lortu eban eta Ertzaintzari emon eutsan abisua. Andreak golpe zantzuak zituala ikusita genero indarkeria leporatuta atxilotu eben ustezko erasotzailea.

Eraso sexista hau salatuteko konzentrazioa egin eben egun bi beranduago Igorreko Kultur Etxearen aurrean, "Indarkeria matxistaren aurrean; erantzun feminista" lelopean.



EKOLOGISTAK MARTXAN-EN BERBALDIA (I)

Erraustegi eta zabortegien aurrean, konpostajea da bidea (I)

Zemendiaren 30ean, Igorre Bizirik talde ekologistak Ekologistak Martxan-eko Basauriko Sagarrak taldeko Roberto Galdos ekarri eban, "Erraustegiak eta zementerak: hondakinen negozio itzela" izeneko berbaldia emoten. Hizlariak, zaborra kudeatzeko moduaren atzean interes ekonomikoak dagozala eta errausketeagaz amaituteko borondate politikorik ez dagoala salatu eban. Errausketea, errauste instalazioetatik zementogintza fabriketara pasau da, eta Cementos Lemonak pneumatikoak, animali urunak, egur hondakinak, plastikokoak eta HEE (hondakinetatik eratorritako erregaia) erabili izan ditu erregai moduan.



Zabalgarbi erraustegia.

Erredakzioa

Zaborra erretea negozioa izan da orain arte. Zabalgarbin, berbarako, zabor tona bakoitxeko 65 euro ⁽¹⁾ inguru ordainduten dau herri edo mankomunidade bakoitxak eta urtean 240.000

tona ⁽²⁾ uri-hodakin tratetan eban instalazio honek 2009an. Gainera, erraustegiak energia jasangarriari emoten jakiezan dirulaguntzak jaso izan dabez. Izan be, erraustegiak "uri-hondakinen balorizazio energetikorako planta" moduan be definitu izan

dira. Baina Europako Hondakinari buruzko 2008/98 Zuzentarauak konposta egitera behartzen dau Europako herrialdeak, eta honek holango instalazioetan zabor tona sarrerak gitxitu ditu. Gainera, bizkaitarrak gero eta zabor gitxiago ekoizten dabe eta 1/2012

BESTE EDUKIONTZI BAT GURE LURRA JAGOTEKO!

Badator edukiontzi marroia, bosgarrena. Prestatu bako landara-hondakin gordinentzat. Adi egon eta lagundu eiguzu gure lurra jagoten. Informa zaitez!

ZAINDU GURE LURRA, MARROIA ERABILI.

INFORMAZIO GEHIAGO: www.arratia.net · 94 631 17 17 · 608 950 133



ARRATIako UDALEN
MANKOMUNITATEK



Errege Dekretu-legeak energia barriztagarrien diru laguntzak kentzean dauz (salbuespenak dagozan arren). Hau holan, errausketa instalazioen negozioa makaltzen joan da.

"Bizkaian Zabalgarbi erraustegia daukagu Alonsotegin. Hasi-
ra baten Bizkaiko zabor guztiak erretzeko errauste instalazio bat egin gura izan eben, baina azkenean, 2005ean, zaborarren erdia erretzeko egin zan" azaldu eban Galdosek Igorren. "Eta aurreikusita egoan bigarren planteia be ez da "momentuz" egingo". 2005-2016 Bizkaiko Hiri Hondakinen Planaren barruan, aurrerago beste planta bat egiteko posibilitadea aurrekusi arren, zaborrak eta legeak izandako eboluzinoa kontuan hartuta, zaborra kudeatzeko modua apur bat aldatzen hasi da, baina ez zaborra erretzeagaz amaituteko lain.

Bizkaiko Hondakin Plan Integrala 2005-2016, 2004ko aurreikuspenakaz egin zan, baina 2007rako herritar bakotzak sortzean dauan zaborra gitxitzen hasi zan. 2009an egin zan plan honen lehenengo berrikuspena, eta abendu honetan bigarren azterketea. Abendu berrikuspen honetan, Batzar Nagusien babesa jaso eban II. Plan Integralak, EAJ-PNVk, PSE-EEk eta PPK planaren alde egin eben eta. EH Bilduk, barriz, Zabalgarbi errauste planteia kritikau eban, "oztopo bat dalako asmo handiagoko birziklatzeko planak egiteko".

Arratiako zaborra ez doa Zabalgarbira, Igorreko zabortegeira baino. Arratian 2011n, 5.750 tona zabor sortu ziran eta zabortegeira



Konposta.

eroaten dan tona bakotzeko 70 euro pagetan dauz mankomunidadeak Aitor Uriguen AUMeko Ingurumen teknikariak BEGITURI jakitera emon deusaren arabera. Dana dala, bertara doan zabor tona kopurua gero eta txikiagoa da. Materia organikoa % 36 da eta hau zabortegeira ez eroateko ahalegina egiten hasi da mankomunidadea. Arratiarrak hondakin organikoak bereiztu daiezan, eta zabortegeira doan zaborra gitxitzeko, mankomunidadeak edukiontzi marroia ipini dau herrietako kaleetan, "prestatu bako landara hondakinak" batzeako eta konposta egiteko.

Atez atekoa edo edukiontzi marroia

Materia organikoa batzeako modu bi dira nagusi, Gipuzkoan batez be. Eta sistema bi horren

arteko gerra moduko bat sortu da. "Gipuzkoan Zubietan erraustegi bat ez egiteko konpostaje portzentaje altuak behar dabez" azaldu eban Galdosek. "Atez ate asko batzea errazagoa da: egun batzuetan ateratzen dabe plastikoa, beste batzuetan materia organikoa, eta abar. Eta bakotzak bere tiketa daroanez, akatsen bat egin ezkerro, jakin arazo egiten jako txarto egin dauanari, eta zelan egin behar dan azaldu".

Hau dala eta, modu honek sano emoitza onak lortu dauz. "Atez atekoagaz materia organikoaren % 80 batzean da konposta egiteko, eta edukiontzi marroiaz % 26 inguru" azaldu eban Ekologistak Martxan-ekoak.

Dana dala, arrakastearren giltza, moduan baino, borondate politikoan dagoala uste dau hizlariak. "Italian eta beste leku batzuetan, edukiontziakaz % 70 be batu da konposta egiteko. Hori ez da zenbaki txarra. Baina populazio osora heldu behar da, kanpainak egin...". Hau da, atez atekoagaz % 80 batu bada, da batez be, herriko guztiak dagoalako zuzenduta eta ez boluntarioi bakarrik.

Arratian edukiontzi marroia, giltzagaz, modu boluntarioan eta sukaldatu bako landara hondakin baino ez batzeako planteau dabe. Holan, ezin da askorik batu eta zabortegeitik ez da materia organiko guztia kenduko. "Gordinik dagoana bakarrik erabiltea konposta egiteko astakeria da. Ez dauka zentzurik. Konposta leku guztietan landara hondakin gordin eta sukaldatuakaz egiten da. Basaurin, mozino bat aurkeztu zan sukaldatua ez sartzearen

kontra, eta EAJ-PNVk, EHBilduk eta PSE-EEk, danak emon eben botoa mozino honen alde" esan eban Basaurikoak.

Zaborra kutsadura iturri

Zaborra bereiztu barik botaten zan sasoi baten, baina Europako Kontseiluaren 1999/31 Zuzentarauak zabortegeietara botatzen dan materia organikoa gitxitze behartu zituan partaideak. Zuzentarau honetan, epeak eta murriztu beharreko kantidadeak ezartzen zituan Europak.

Ebatzi hori zabortegeietan materia organikoa eta plastikoa eta beste material batzuk nahasten diranean, lixibiaduak sortzean diralako hartu zan. Honeek lurrrak eta lur azpiko urak kutsatzen ditue eta ezin dira urok erabili. Zuzentarau horren helburua zabortegeietara ahalik eta materia organiko gitxien botatea zan. Gero, zuzentarau eta lege gehiago etorri dira, materia organikorik ez botatea lortzeako.

Zabortegeiak arazo handiak sortu eta zaborren arazoa ez dabela konpontzen ikusita, zaborra erretzeari ekin eutsien leku askotan. Bizkaian berbaroko, lurraldeko zabor kopuru erdia erretzeko egin zan Zabalgarbi. Baina errauste instalazioak airea, lurrrak, urak, animaliak eta personak kutsatzen ditue isurtzen dabezan dioxina, furano eta metal astunakaz.

⁽¹⁾ Iturria: *La incineración de residuos en cifras*. Greenpeace 2010.

⁽²⁾ Iturria: *Planta de valoración energética de RSU de Bizkaia Zabalgarbi*. Sylvain Cortes FCC, SA. 2009.



Gabonetan Oparitu BEGITU-lagun!

Egizu zure laguna BEGITUREN harpidedun * Deitu 649 979 115 telefonora eta otzara bete kultura oparituko deutzazu.

- 6 liburu: Arratia Inguruko Hiztegia, Ortozik, Ametz, Peru Tximaluze, Haizea aurpegian eta Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak.
- Arratia, Ubide eta Zeberiko argazki zaharren postal bildumea
- Luis Iruarrizaga Abesbatzaren 25. urtemugako CDa

35€, 55€
edo 75
Euroren truke

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO

ORIENTAZINOA

Orientazino proba Artean

Erredakzioa

Arteko Kirol, Kultur eta Euskera Taldeak (AKKT) gaueko orientazino proba antolatu dau hilaren 22rako. Partaideak arrastiko seiretan batuko dira Arteko plazan eta ordubete izango dabe ahalik eta baliza gehien topetako. Profesionalak be egongo diran arren, herritarrai dago zuzenduta "jenteak kirol hau ezagutu daian" Iñigo Ramos antolatzaileraren esanetan.

Proba honetan, partaideak antolatzailerak ostondu dabez balizak topau behar dabez. Ahalik eta gehien. Horretarako mapa bat izango dabe eta ordubeteko epea. Baliza bako txak puntu batzuk izango ditu, topetan errezanak 3 puntu eta

gatxenak 8, eta puntu gehien lortzean dabezanak irabaziko dabe. Berandu amaitzen dabenak minutu bakoitzeko 10 puntu galduko ditue. "Ordubetera edo ordubete baino gitxiagora danak plazan egotea gura dogu. Gero txokolatea egongo da parte hartzaileentzat" azaldu deutso BEGURI AKKT-koak.

Mapa bardina izango dabe partaide guztiak, nahiz eta gero 3 sailkapen egin (andrak, gizonak eta umeak). "Ez da saririk emongo. Izan be, gure asmoa ez da lehiakortasuna bultzatzea, danontzako moduko kirol hau ezagutzera emotea baino" dinoe antolatzailerak.

AKKT-k gaueko orientazinoa Artean antolatuten dauan bigarren aldia da hau.

PELOTEA

Ekhi Ziarrustak Baque txapela irabazi dau

Partidu ikaragarri ona egin eban dimoztarrak Cafes Baque XXVII. Txapelketaren finalean eta, pronostiko guztien kontra, txapela lortu eban. 10-0 galtzean hasi arren, Ziarrustak 20-22 irabazi utsal Xabier Erostarberi, leporaino betetako lurretako frontoian, zemendiaren 30ean.



Ekhi lagunakaz batera finala irabazi eta gero.

tak bere onena atera eban. Dimako pelotariak, arriskuak hartuz markagailuari bueltea emotea lortu eban, merezidutako garai-pena eta txapela lortuz. Azkene-ko tantoetan ikuskizun bikaina bizi izan zan" dinoe Bizkaiko Eusko Pilota Federakuntzakoak.

Ezusteakoa izan zan pelotariarentzat berarentzat be finalera heltzea "ez neban espero, lehenengo urtea da kategoria honetan (Gazte mailan). Baina finalaurdenak pasau, finalerdiak be bai eta finalean zeozer egin gura neban" azaldu deutso BEGURI Ziarrustak. Iñigo Atutxak, bere

botileroak, erreza izan ez arren, posibilitadeak bazituala Ziarrustak pentsetan eban. Denporaldia ezin hobeto hasi dau Dimakoak, posibilitade horreek gauzatuz.

Afizinoa pozik

Txapela bakarrik ez, emondako ikuskizuna be eskertu eban afizinoak eta pelotariak be bai afizinoaren portaerea. Ziarrustaren lagunak, gaztetxeko jentea, pelota eskolako kideak... danak egon ziran lurretan Dimakoa animetan. "Afizinoa sano ondo egon zan eta eskertzen da" dino pelotariak.

Erredakzioa

Hasikeran, partiduak Erostarberen aldera jo eban, "Erostarbe nagusi zan eta partidua bukatzeaz egoala irudianean, Ziarrus-

*** KIRRU * ILEAPANDEGIA**
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
☎ 94 631 91 00

Orre
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
E. Agirre, 7
48100 Iñurre (Bizkaia) ☎ 94 623 84 28

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza ☎ Tifnoa 649 86 95 36

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Umeen moda 0-20 urte
*** Bono Denda erabilteko aukera**
*** Merkealdia**
abenduak 17tik
sezeilak 17ra
sein
LEHENDAKARI AGIRRE, 27 • 946 399 296
SEINMODA@hotmail.com

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERRITZUAK
Gabe, 29 ☎ Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

ARRATIA AUTOESKOLA
Karmela eskolaz zain erakoz
Agine Lehendakaria 11 48140 Iñurre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 83
E-posta: unaburu@euzkadi.net

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Iñurre
94 631 52 26

Los Chopos
neurritza egindako armairuak
Alda. Los Chopos, 35 (Nagar) ☎ 94 430 40 94
Esposizinoa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak
Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tifnoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

axular
kultur elkarrua
Agine Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

indar
instalazio elektrikoak
Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Emilio Galtia banatzaile ofiziala
San Miguel
Ardoak Edariak
94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloa (Iñurre)

AHOLKULARITZA:
LEGI-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONSTRUKTIBO
ONDASUN HIGIEZKINEN
ASIGURATUTAN
Sabino Arana, 5 Tifnoa: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 04 01 - 48140 Iñurre

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3, 3a ☎ 94-673-70-87
Iñurre 48140 Bizkaia ☎ 609-79-40-54

ekin s.a.
CONSTRUCCIONES
LAN PUBLIKOAK
INDUSKETA
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTSU SAREAK
BASERI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK
Iturizt barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseekin.com

Pinturas Arratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

FUTBOLA

Andrazkoak ederto, gizonetzkoak ez horrenbeste

Clara Luja Azpiri

Arratia andrazkoen taldeak huts eta sei irabazi eban jokaturako azken partidua, Deportivo Alaves taldearen kontra. Partidu hau pasa dan abenduaren 9an jokatu zan, Gasteizen. Euskal ligaren hamaikagarren jardunaldiaren ostean, Arratia klasifikazioaren bigarren postuan dago eta hurrengo partidua Beasain taldearen kontra izango da, urtailaren 5eko arrastiko bost t'erdietan, Urbieta zelaian.

Gizonak hamahirugarren

Lurraldeko lehentasunezko mailan dagoan Arratiak bere azken partidua galdu dau huts eta bat Galea "A" taldearen kontra. Partidua Urbieta zelaian jokatu zan, Igorren, eta honen ostean taldea klasifikazioaren hamahirugarren postuan dago. Azken hiru partiduetan Arratiak bat irabazi, 4-0 Basurto "A" taldearen kontra, eta beste biak galdu ditu. Hurrengo partidua abenduaren 23an izango da goizeko hamaika

t'erdietan, Bilboko La Roseta zelaian Iturrigori "A" taldearen kontra.

PELOTEA

Pala jokoan ikasiko dabe Bediako pelota eskolan

Erredakzioa

Hamahiru ikaslegaz hasi dau bere ibilbidea Bediako pelota eskoleak. Bediako Udala eta Bizkaiko Pilota Federakuntzearen ekimenetik sortu da eskola hau "jenteari pala jokoan ikasteko aukerea emoteko, beren jokoa hobetuteko eta, aurrera begira, txapelketaren baten parte hartzeako" Endika Basañez irakaslearen esanetan.

Astelehenetan arrastiko sei t'erdietatik zazpi t'erdietara izaten dira eskolak eta edade guztietako jenteak emon dau izena. Hastapen mailako talde bakarra dago momentuz baina taldeagaz pozik dago Basañez "uste baino jente gehiago" batzean dalako frontoian pala jokoan ondo pasetako helburuagaz.

ZIKLO-KROSA

Aitor Hernandez eta Lucia Gonzalez garaile Igorren

Julen Bilbao

Heldu zan atzenean Igorreko lasterketea, etxekoa, probarik garrantzitsuena, bai guretzat baita estaduko parte hartzaileentzat be, nahiz eta oraingoan Munduko Koparako baliogarria izan ez. Futbolagaz lotura bat eginda, bertaratutako ziklo-krosari askoren agotan entzuten zan Igorreko karrera estaduko ziklo-krosaren katedrala dala, zeinda San Mames futbolekoa dan; eta berba handiak dira horreek, lasterketa honen gogortasuna erakusten dabenak.

Txirrindulariai jagokienez, junior mailan, Luis Maria Fernandezek eta Ander Villaverdek hogeita hamazortzigarren eta hogeita hemeretzigarren egin eben. Maila honetan, Alex Aranburuk, kategoriako "jefeak", hasikera-hasikeratik kontrolau eban karrera, eta berak irabazi eban.

Master-50 kategorian, Opel Ibaiganeke Jose Antonio Mazairak eskuratu eban garaipena. Lehenengo bueltan jausi egin zan arren, atean altxau eta lanari ekin utsan barriro be helmugan lehenengo sartu arte. Zorionak, Mazaira!

Master-30 kategorian, Lander Peñak karrera itzela egin eban, eta bigarren amaitu eban, Mikel Epalzak, ostera, atzetik aurrerantzako karrera eginda, bosgarren amaitu eban. Zorionak bai, postu on-onak dira eta. Bestetik, 23tik beherakoetan, Jon Mikel Kareagak hamahirugarren egin eban.

Eta Elite kategorian, andrazkoetan, Naia Alzola dimoztarra oso fin ibili zan, eta bederatzigarren amaitutea lortu eban. Gizonetzkoetan suerte diferentea euki eben gureak. Julen Zubero, esate baterako, arazo mekanikoak dira-

la-eta, erretirau egin zan: penea, ze karrera polita ebilen egiten. Manu Quintanillak, barriz, hogeita batgarren amaitu eban, eta Alberto Hierrok, hogeita bederatzigarren. Meritu handiko postuak dira horreek Igorren. Baina kategoria honetan, batez be, Erlantz Uriartek zer egingo egon ginan, eta ez eban suerte onik euki; hasi eta segiduan erorketa baten trabautu gelditu zan; halanda guzti be, atzetik aurrerako karrera eginda, zazpigarren amaitu eban: zorionak Erlantzeri eta beste guztiai!

Antolaketa bikaina

Igorreko Ziklo-kroseko antolakuntzearen beharra goraiatu behar da, Juan Mari Zurinaga AZEko lehendakariatik hasi eta azken boluntarioaraino. Sano gata da holango lasterketa bat antolatzea; eta ederto baten egoan dana antolatuta. Oso ondo aztertuta eukien baxotxaren beharra, eta, holan, karrerak amaitu eta berehala, dana egoan batuta, garbi-garbi.

Zoriondu baino ezin dira egin. Ez dakiola ziklo-kros lasterketa hau egiteari itxi, herrikook bihotzean daroagu-eta. Eskerrik asko laguntzaile guztiai, AZEri, parte-hartzaile guztiai, herriari eta, zelan ez, boluntarioai.

Abenduan, Ametzaga, Telleriarte, Asteasu eta Itsasondoko probak

Igorreko probaren aurretik Ametzagan (Araban), Elite mailan Erlantz Uriarte hirugarren, Julen Zubero seigarren eta Manu Quintanilla hamabosgarren gelditu ziran. Bestetik, 23tik beherakoetan, Jon Mikel Kareagak laugarren egin eban. Junior kategorian Mikel Zarrabe, Luis Maria Fernandez eta Ander Villaverde 22., 24. eta 30. gelditu ziran. Master-30 mailan, Mikel Epalzak hirugarren amaitu eban, buelta askoan buruan ibili eta gero, eta Lander Peñak bederatzigarren postua eskuratu eban. Master-50 kategorian, barriz, Jose Antonio Mazaira bigarren gelditu zan.

Telleriarten (Legazpin) arratiar gitxi ibili ziran. Master-30 mailako Mikel Epalza eta Lander Peña baino ez ziran egon, sano postu onak eginez: hirugarren gelditu zan Epalza eta laugarren Peña.

Asteasuko proban, Elite kategorian, Erlantz Uriarte eta Naia Alzola biak gelditu ziran bosgarren. Master-50 mailan, Opel Ibaiganeke Jose Antonio Mazaira izan zan irabazlea, eta Master-30 kategorian Mikel Epalzak laugarren eta Lander Peña usansolotarrak zortzigarren egin eben.

Amaitzeko, Igorreko probaren bezperan, Itsasondoko egin zan. Oso-oso gogorra izan zan; hotza, euria eta lupetza nabarmendu ziran. Holan, Elite mailan, Erlantz Uriarte seigarren gelditu zan; Master-50 mailan, Jose Antonio Mazaira hirugarren; eta Master-30 kategorian, barriz, Mikel Epalza zazpigarren gelditu zan.

JOKOAK

Jokoak Bedian BEGITUEN urteurrenean

Erredakzioa

Hogeita bost andra inguruk hartu eben parte Bedian BEGITUEN urteurreneko ekintzan. Sano giro ona egon zala eta jenteak herri ekimenez sortutako ekintzetan parte hartzeako gogoia adierazo ebalu dinoe antolatzaileak.

Lau taldetan banandu ziran partaideak: txarriak, behiak, txakurrak eta katuak izeneko taldeetan, hain zuzen be. Bakotxean, 5 nagusi eta ume batzuk lehiatu ziran sokatiran, txokor batzen eta ugelean.



Erlantz Uriarte Igorreko lasterketan.

ekin s.l.
LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
LUR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

Iturizte barrena 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: cbras@construccioneseekin.com

Europa dendea

Lehendakari Agirre, 11 - Ioraga 3 - 48140 Igorre - Tel. 94 631 99 40

GALANTA
Bametik janzteko
Zugandik sano hurbil

Lehendakari Agirre 23, Igorre
Telefonoa: 94 631 90 08
Ebagi deskontu bonoa
eta erdu Galantara!

GALANTA
DESKONTU BALEA **5€**
Epea, abenduak 15era arte
40€tik gorako erosketan

GALANTA
DESKONTU BALEA **10€**
Epea, abenduak 15era arte
50€tik gorako erosketan

TAILERRA

Eskubide ekomikoak jakiteko tailerra egin dabe andrak Areatzan

Zuzenbide Zibil zein Foru Zuzenbidearen arabera, ezkontza bat amaitu edota testamentudun edo testamentubako heriotz baten ondoren ondasunak zelan bananduten diran jakiteko, tailerra emon eban Idoia Ruiz Sanchez Areatzako Emakume Foroko kide eta BFAko finantza teknikariak.

Erredakzioa

Hamabost andra inguruk hartu eban parte ikastaro honetan. Ikastaroa andrai zuzenduta egon zan eta saio bi izan zituan. Lehenengoa zemen-diaren 15ean izan zan, eta bertan, ezkontzaren araubide ekonomikoaren arabera zelan bananduten diran ondasunak Bizkaiko Zuzenbide bietan jakin eban parte hartu ebanak. Bigarren saioa, abenduaren 10ean izan zan, eta orduan oinordetzarako eskubideak landu ziran. Ikastaroaren helburua andrak euren eskubide ekonomikoen jakitun izatea izan da. "Androk, askotan, ez doguz ebatzi ekonomikoak hartzean ez dakigulako, edo gai horrek bildur emoten deuskulako; informazioa jasotea inportantea da ebatzi horreek gure eskuetan hartzeako. Bikote bat amaituten danean, dibortzio

baten ostean edo bietako bat hiltzen danean, andrea egoera txarrean geratzen da askotan, eta hori sahiestu ahal da gauzak lehenago ondo egin ezker: hau da, ezkontzaren araubide ekonomiko ondo aukeratu, testametu egin, eta abar" azaldu deutso Idoia Ruizek BEGITURI.



Idoia Ruiz eta tailerreko kideak.

TONBOLEA

Caritasen tonbolea Igorren



Caritasen tonbolan igorretarrak.

Erredakzioa

Kongo eta Perun dagozan Igorreko misinolariei laguntasuna emateko Gabonetako tonbolea antolatu dau Arratiako Caritasak Andra Mari liburudenda izandako lokalean, Agirre Lehendakaria kalean. Goizez eta arrastiz egon da zabalik hilaren 14tik 16ra eta 21etik 23ra be zabalik egongo da goizez eta arrastiz. Arrastiz bakarrik egongo da hilaren 17tik 20ra. Goizeko ordutegia 10:30etik 13:30era eta arrastikoa 16:30etik 20:00etara da.

LIBURUTEGIA

Liburutegia berriro zabalik Diman

Erredakzioa

Hilaren 23an liburutegia berrinaugurauko da. Hainbat urtetan itxita egon ostean, herritar talde bat beharren ibili da liburutegia berriro zabalitzeko. Auzolanean egindako lana izan da eta hemendik aurrera be auzolanari esker mantenduko da zabalik, herritarrek txandak egingo ditue-eta "liburuzain" lanak egingo. Berrinaugurazio ekitaldi nagusia 12:00etan izango da udaletxe-ko aterpean. Halanda be, ekin-tzak egun osoan zehar egongo dira. Goiz eta arrastiz udaletxe-ko aterpean liburu azokea antolatu dabe 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara liburutegitik erretiratuak eta bakotzak etxetik

eroandako liburuakaz. Arrastian kultur ekintza bi izango dabez hurreratzen diranak: 17:00etan *Ni ez naiz Olentzero* ipuin kontaketea 4 eta 12 urte bitartekoentzat eta 18:00etan ilustrazio tailerra.



BEGITU

Sanmartinetako bertso-bazkaria eta beste bideo batzuk www.begitu.org-en

Erredakzioa

Dima eta Igorreko Euskerearen Eguneko ekitaldien bideoak ikusgai dagoz BEGITUREN webgunean eta Dimako auzoen arteko olinpiadetako finalaren argazkiak be bai. Baita Arantzazuko Sanmartinetako bertso-bazkariaren bideoa. Arantzazuko Bildu Kultur Batzordeak antolatutako bertso-bazkarian "ehundaka entzule hurreratu ziran bertsoez eta baba-janz gozetako" antolatzaileen berbetan. Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso egon ziran "herriko kontuai puntea ateraten" Arantzazuko frontoian. Saioaren zatitxo bat grabau eban eta youtube-n dago. BEGITUREN

webgunean be ikusi daiteke bideo hau. Jaiari amaiera biribila emateko Jon Loiolak eta Ibai Aranak euren soinuakaz jentea jantzan ipini eban.

Begitu-lagun Gabonetako opari

Gauza asko diru gutxiaren truke eta gainera opari original eta euskaltzalea egin gura badozu, egin zure lagun bat Begitu-lagun. Urteko kuotea pagauta 6 liburu, disko bat eta antxinako argazkien bildumea jasoko dau Begitu-lagun bariak, dana txukun-txukun opari moduan bilduta. Eta urtean zehar oparixkoak jasoten jarraituko dau, urte osoan Begitu-lagunen artean liburuak, CDak, zine eta ikuskizun sarrerek eta beste produktu batzuk zozketatzen dira.

GAZTE TOPAKETAK

Gazteen intereseko ekitaldi eta topaketak

Erredakzioa

Gazte Topaketak 2012 izenagaz Igorreko Udalak gazteen intereseko ikastaroak, mintegiak, lehiaketea, zineforuma eta jaiak antolatu

ditu. Lokal Egungaz hasi ziran topaketok eta hilaren 29an Igorre Urban jaia, kaleko kulturen festibala izango da. Ekintza guztiak doban dira eta izena Igorreko Kultur Etxean emon behar da. Hiru ekintza baino

gehiagotan parte hartzean daben artean ipad bat zozketatuko da. Zirku ikastaroak, etxebizitza eta enplegu prestakuntzearen gaineko mintegiak, gidatze arduratsu eta film laburren ikastaroak, sexualidadearen gaineko zineforuma, film laburren lehiaketeak eta Urban jaiak osotuten dabe topaketa honeek.

Kaleko kulturen festibala

Abenduaren 29an izango da egun osoko jai hau. Bertan, skate tailerrak eta semiprofessionalen lehiaketea, graffiti tailerrak eta profesionalen erakustaldia eta *breakdance* erakustaldia egongo dira. Kontzertuak be ez dira faltauko eta Igorren Pablo Hasel, Norte Apache eta Fenomenos de la Naturaleza egongo dira beste batzuen artean.

DANERIK

Zeanurik Sabin Intxaurrea gogoratuko dau

Erredakzioa

Sabin Intxaurrearen heriotzearen bigarren urteurrenerako hainbat ekitaldi prestatu dabez Zeanurin bere oroimenez. Abenduaren 27an, izango da omenaldia eta goizean mendian, eguerdian jubiladuen tabernan eta arrastian Kultur Etxean izango

dira ekitaldiok. Goizeko 11:00etan, Argotan, Gorbeian, txistulariak eta txalapartariak jo eta agurra egin ostean, Intxaurrea zanaren lagunak pasadizoak kontauko dabez eta kopautxoak egongo da bertaratuten diranentzat. Gero, herri bazkaria jubiladuen tabernan eta arrastian "Memoria eraikiz" izenpeko ekitaldixoa. Lehenengotik literatur lehiaketearen sari banaketea egongo da eta ondoren, *Zamorako apaiz kartzela* liburua-aren aurkezpena eta kokapen historikoa. Horretan, Martin Orbe, Joseba Zabala eta Julen Kaltzada lekukoak lagunduko dabe.

INTERNET

"Badatorrela! Zer? Zorroztarrie!"

Irati Urien

Esaldi hau ezagun egin da Arratian eta bai hemendik kanpo, orain dala hilabete bat inguru eskualdean grabau zan bideoa dala-eta. Jaio eta martxan dago Zorroztarrie. Zorroztarrie Arratiako gazteen blog barri bat da. "Euren artean komuniketako, ekintzen barri emoteko, eta izenari

lotuta herriak zorrozten hasteko asmoduna da besteak beste" dinoe egileak. "Gaur egunean sareak daukan garrantzia dala eta gure bailararen presentzia sarean beharrezkotzat jotzen dogu. Gazte mobimentua modu honetan indartuteko gogoia daukagu" dinoe gazteak. www.zorroztarrie.blogspot.com helbidean topau daiteke blog hau.



IRAKASKUNTZEA

Lemoako eskolea Kubako eskola batez senidetu da

Erredakzioa

Bizkaiko hainbat eskola Kubako beste eskola batzuek senidetu dira. Horreen artean, Lemoako JB Eguzkitza Meabe Ikastetxe Publikoa Kubako Escuela 2 de Diciembre eskoleagaz. Hori ospatuteko Bilbon ekitaldi bat

egin eben eta bertan Lemoako eskolako irakasleak eta ikasleak, alkatea eta kultura zinegotzia egin ziran.

Senidetze honen helburua, herri bien arteko ezagutza bultzatzea da. Horretarako, Lemoa eta Kubako ikasleak eskolan egindako lanak trukatzin dabez.

DISKOA

Izen iluna, musika gogorra

Erredakzioa

Argiak lekurik ez duenean izeneko diskoa kaleratu barri dau Nik Khaos Arratiako taldeak. Taldekoak eurak sortutako 10 kanta batzean dauz Luberrri Produkzioak estudioan grabautakoak. Durangoko Azokan salmenta onak izan ostean, orain zuzenekoa prestatzen dabiz.

Nekazal metal moduan definitzen dabe taldekoak euren musika. "Musika gogorra egiten dogu, metala. Nekazal hori ipinten deusagu Arratiakoak garalako" azaldu deutso BEGURI Patxi Iza Nik Khaoseko bajuak. Izan be, metala beti uriakaz lotzean da. Dana dala, ustez inguru bigunago honetatik egindako disko hau sano gogo-

rra da, izenak berak sugeriduten dauan moduan. Izan be, kantuak indarra, hasarrea eta egunerokotasuneko sentimenduak adierazoten



Ugaitz Lekue, Iñigo Mintegi, Amaia Sagredo eta Patxi Iza.

BERBALAGUNA

Berbalaguna aurkeztu zan Diman

Erredakzioa

Abian da Arratiako Berbalaguna 2013. Euskaldun barriak eta euskaldun zaharrak alkatuko dituan proiektuak burutu dau bere lehenengo ekintza eta aureko urteetan euki dauan arrakasta

badaukie 2013ko ekintzak be, ibilbide oparoa eukiko dau Berbalagunak. Hilaren 14an, arrastiko 19:30ean Lemoa, Dima, Areatza eta Igorreko berbalagunak alkatu ziran proiektu honeri hasikerea emoteko. Opari bat jaso eben Berbalagun barriak;

dabez.

Estudioan zenbait musikari lagun kolaborazioak izan ditue, Etsaiak, Juanra Kop eta Ibon Bion kolaborazioak hain zuzen be. Taldearen erreferentziak Clawfinger, 69 chambers, Machine Head, Rise Against, Narco, Ekon eta Koma izan dira beste batzuen artean.

Arratiako Berbalaguneko logoa dan giltzari bat, hain zuzen be. Hemendik aurrera euskera gehiago egiteko konpromisoa hartu dabela gogorarazoten deusien giltzaria, konpromisoaren giltza, alegia. Urteko balorazioa egin, 2013rako proposamenak jaso, sorpresea, pintxoak, ardaoa... dannerik egon zan giro ezin hobean. Izena emoteko edo informazioa jasoteko Udaleko Euskera Zerbitzura deitu behar da.

DUNBA

Euskeraz bizi gura dogu 365 egun



Amaia Arauzo Inazio Zubizarreta ikastetxeko ikasleakaz.

Inazio Zubizarreta eskolako 6. mailako ikasleak

Euskerearen Eguna dala eta, Igorreko Euskera Normalkuntza Teknikaria gure eskolara etorri da euskerearen egoerearen gainean berba egiten.

Amaia Arauzo normalkuntza teknikaria da eta bere ardura euskereari jagokozan eskubide eta funtzinoak beteteko lan egitea da. Gure herrian euskerearen egoerea normalduteko merkatariakaz bilerak egiten dira, eskolan eta institutuan be egiten

da lan, jaialdiak antolatzen dira eta enpresakaz behar egiten da. Amaiak emondako datuen arabera Euskal Herrian euskerearen ezagutzea % 27,6koa da eta erabilera % 13,83koa. 2001ean Igorren egin zan kale neurketearen arabera, euskerearen ezagutzea % 77koa zan eta erabilera % 33koa. Azken neurketea 2011n izan zan eta bertan jasotako emoitza honek izan ziran: ezagutzea % 68,1ekoa eta erabilera % 46,8koa. Neurketa honeen arabera Igorren euskerearen erabilera igon egin da, baina oraindino be ez da helduten hiztunen erdira.

Guk gure eskolan euskerearen normalkuntzaz arduratzen diran ikasleak daukaguz, Euskerearen Eguna be ospatu dogu eta aurten gauza asko egin doguz, adibidez: "euskeraz bizi gura dot" nika eskolara ekarri, pegatinak egin, euskerearen aldeko

konpromisoa hartu, talo jana egin eta ikuskizunaz gozatu. Halandaxe, ez Euskerearen Egunean bakarrik, urte osoan zehar euskeraz egin beharko geunkela pentsetan dogu. Egun horretarako bertsolaritza saioan bertso batzuk prestatu genduzan, horreetako bat hauxe da:

Zuztertxuk taloak zanpau euskaraz egiteko nor-nori-nork bat esanda talo barik itxeko guk be gosea dekogu euskera gozatzeko taloak amaitu dira hurrengoan hobeto.

Inazio Zubizarreta eskolako 6. mailako ikasleok ondo deritxagu herrian eta eskolan euskera babestuteko eta normalduteko behar egiteari. Igorren euskera gehiago erabili behar dala pentsetan dogu, horretarako

euskera dakigunok euskera erabili beharko geunke eta ez dakian jenteari euskera erakutsi. Garrantzitsua da Igorren eta Euskal Herri osoan euskera babestu eta normaldutea, euskera dalako euskaldun egiten gaituana. Amaituteko, eskerrak emon gura deusaguz Amaia Arauzori emon euskuzan azalpen guztiakaitik.

Gau eta egun euskeraz bizi gura dot eta horixe bera egin daikezu zuk be!



AGENDEA

ABENDUA

ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIO

Gabonetan, 100 ekintzatik gora dagoz gure herrietan eta 6. eta 7. orrialdeetako programetan ikusi daitezke. Hona, Gabonetan ohiko programetatik kanpo dagozan ekintzak dakarguz.

ARTEA

Hilaren 21a arte, Lana bilatzeko teknikai buruzko ikastaroa. Arteako Kultur Etxean.

ABENDUAK 18

LEMOA

18:30ean, Genero Bardintasunerako diagnostiko parte-hartzailea: "Kaleak, etxe barruko eta kanpoko ardurak, herrian dugun parte hartzeak... esanahi bera dute emakume eta gizonezkoentzat?" Jubiladuen Etxearen goiko aretoan.

ABENDUAK 19

ZEBERIO

19:00etan, *Annapurnako trekking-a* diaporama emonaldia udaletxean.

ABENDUAK 20

AREATZA

19:30ean, zineforuma Charlie Chaplinen *Candilejas* udaletxean.

ABENDUAK 21

AREATZA

21:30ean, Kepa Junkeraren kontzertua The Quiet Corner-en.

IGORRE

18:00etan, sexualidadearen inguruko zineforuma, *Krampack* filma. Gero berbaldua Karlos Juste Bezain sexologia zentroko zuzendariagaz. Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

17:30ean, balet ikuskizuna plazako aterpean. Zeberio eta inguruko herrietako ikasleak.

ABENDUAK 22

AREATZA

16:00etatik aurrera Arratia-Nerbioi 11. jardunaldia. Areatza-Usansolo.

ARTEA

18:00etan, Orientazioa. Arkikuta taldeak antolatuta.

IGORRE

11:00etan, Elikadura Subirautza Arratian II. Topaketak. 105eko parkinean. Azokea.
12:00etan, berbaldua "Elikadura subirautzaren etorkizun hurbileko erronkak". 14:00etan, asanbladea eta ondoren baba-jana. Truke azokea be egongo da.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak eta JB Eguzkitza Meabe ikastetxeak antolatuta. Turroi eguna. Ubide. Motxotegi (799 m).

17:00etan, Bizkaiko Esku Pelotako Txapelketako finalak.

ABENDUAK 25

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta urtekerea Anboto (1.331 m).

ABENDUAK 26

ZEBERIO

12:30ean, San Esteban jaiak Etxazon. Idi-probak eta barauskarria.

ABENDUAK 27

ZEANURI

Sabin Inbaurraga gogoan. 11:00etan, ekitaldia Algortan (Gorbeia). 15:00etan, herri bazkaria Jubiladuen Tabernan. 18:30ean, literatur lehiaketaren sari banaketea eta *Zamorako apaiz kartzela* liburuen aurkezpena.

ABENDUAK 28

IGORRE/LEMOA

Azkenengo barikua. 18:30ean konzentrazioa Lemoan Intzuntzako bidekurutzean. 19:30ean konzentrazioa Igorren Kultur Etxe ondoan.

ABENDUAK 29

IGORRE

Igorre Urban Jaia 2012: kaleko kulturen festibala. Eskolako aterpean.

22:00etan enkantea errepresaldiaren alde Axular Herriko Tabernan.

ABENDUAK 30

DIMA

11:00etan Giza eskubideak, irtenbidea, bakea. Dima U12 bidean ekitaldia.

IGORRE

19:00etan, film laburren lehiaketaren sari banaketea. Kultur Etxean.

LEMOA

19:00etan, Argia emonaldia, *Morir de día* dokumentala.

ABENDUAK 31

IGORRE

18:30ean Igorreko udaletxetik urtenda Herrirak antolatutako Gabon Zahar eguneko urteroko manifestazioa. Ostean otzarearen zozketea.

AREATZAKO BANDA



Kontzertua

URTE AMAIERAKO
KONTZERTUA

Lekua: AREATZAKO ELIZAN

Noiz: Abenduaren 30ean, 19:30ean

Bandearen kontzertua Areatzan urtea amaituteko

Abenduaren 30ean, Areatzako Bandak urteari amaiera emongo deitso 19:30ean Areatzako Eleizan emongo dauan kontzertuagaz. Urtero lez, ezuste dibertigarriak, umorea eta solidaridadeak beren lekua izango dabe musikea baino gehiago eskeintzen dauan kontzertu honetan. Edade guztietako billaroztarrak batzean dira egun honetan, erroparik onenak jantzita, urte zaharrari agur esateko, Vienan urte barriari egiten jakon legez.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALGAI

Garaje partzela salgai Lemoa erdigunean. 660 549 695 Bego.

SALGAI

Haretzeko arasa ederra salgai. 139zm zabal, 50 sakon, 193 altuera. Ikusgai dago Elexalde 10ean, Igorren. 800 €. 615 731 182.

DANERIK

BASERRIA ALOKATU GURA DOGU

Alokairuan dagoan baserri edo etxea gura dogun bikote bi gara. 685 707 176 Eider.

ETXEA ALOKATZEN DOGU

Alokairuan dagoan pisu baten bila gabizan neska arratier bi gara. Alaitz eta Maider 652 722 698.

UMEAK JAGOTEN DODAZ

Arrastiko ordutegian umeak jagon edo klase partikularrak emoteko prest nago. Kotxeduna. Interesdunak deitu zenbaki honetara 600 759 434 (Naiara)

Telefonoa.

UMEEN ZAINTZAK

Umeakaz esperientzia daukan neska bat zuen seme-alabak jagoteko prest dago. kotxeduna (Pili 686 728 843).

KLAKE PARTIKULARRAK

Euskal Filologian eta Haur Hezkuntzan titulauako neska gaztea naz eta klase partikularrak emoten dodaz. Esperientziaduna. 652 744 411 (Itziar).

Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Angel Larreak emondako *Arratia Inguruko Ipuinak* liburua.

Gotzon Aurrekoetxea (Dima)
Karme Angoitia (Zeanuri)



2 Igorreko Udalak eta pelota alkarteak emondako bina sarrera *Agirre-Otxandorena/Mikel Goñi-Galarza VI. pelota partidurako*.


Lander Gurtubai (Igorre)
Maider Larrea (Areatza)



3 Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 10 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Letra bat. Edadeko. 2.- Galdera aurretik. Momentu guztietan. 3.- Balio Erantsiaren Zerga. Santu bat aitatzean. 4.- Eskua itxita. 5.- Abade. Letra bat. 6.- Bokala. Bildots. 7.- Zuhur. (Atz.) Egile atzizkia. 8.- Azkarra. Oxigenoa. 9.- Lupetz.

GOITIK BEHERA

1.- Amaiera. Narru. 2.- Baina, barazkia. Guzti, dan. 3.- Azken letrea. Ixita ez dagoana. 4.- (Atz.) Barioa. Limosnea eskatzeko ontzia. 5.- Ixki, zarratu. Atadian, kanpoan. 6.- Zati. Musika nota. Letra bat. 7.- Errepetiduta, telefonoaren hotsa. Moltso.




Topau hondartzeagaz lotuta dagozan zazpi gauzaren izenak.

H	E	S	I	T	O	L	U	D	A
I	M	A	R	X	A	E	Z	O	L
A	U	N	I	A	P	U	K	S	E
N	A	I	A	P	O	L	U	K	A
T	O	K	O	E	D	I	R	E	M
S	K	E	A	L	U	T	A	L	I
H	A	T	E	A	Z	S	I	R	O
O	T	K	R	E	M	A	S	E	A
R	I	B	A	S	I	S	T	G	J
E	K	I	N	E	B	O	A	I	E
M	Z	O	L	I	R	A	X	E	N
O	U	A	I	O	L	A	B	R	U
K	G	U	R	I	B	R	H	O	K
I	E	S	T	U	L	E	A	G	O
B	E	T	A	L	E	D	A	M	I

AKI MI KO

Ait ziber



sistematik
hanka

OPEL

Ibaigane, S. Coop. Ltda.

Estuñol, 15
48330 LEMOA (Bizkaia)
Tel: 631 33 30 - 631 31 31
Fax: 631 36 15

Tel: 94 631 60 00 - E-mail: info@aramotz.com

ARA OTZ

Landegian O Jabetzen!

Barrio Ugarana 2 de - ADAR Dena - (Bizkaia) www.aramotz.com

expert **ARRATIA**

E posta: expertarratia@cordevi.com
Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

INCOESA

Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

ARRATIKO ZEKORRAK

arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasak

Aireztatze sistemak - Aire zurgitze zentralizatuak
Tutak kontrolatzeko erretzikuluak eta mantentze lanak

Igarra Industrialen, Pol. 37
Tel. Fax 94 673 62 76
619 734 616
48140 Igoire Bizkaia

Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri ikastetxeak 2 urtetik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoia

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igoire

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igoire

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Baxilergoak, Hezkuntza zirkloak

ARITZ UNDURRAGA ETA IRATI URIEN

"Atera zukgua garunari!"

Zukgua Euskal Herri osoan herriz herriz martxan dabilen prozesua da. Bere bitartez gazte antolakunde barri bat sortutea da asmoa, independentziaren aldekoa eta gazte ezkertiarrez osotutakoa. Udan zehar aurrera eroan ziraneko hausnarketa eta harreman dinamikan dauka jatorria. Ondorio lez, "euskal gazteak argi ikusi eben gazte antolakunde baten beharra egoala" dinoe. Kontua da antolakunde hori zelakoa izango dan zehaztu behar dala eta horretarako da Zukgua Prozesu Eratzailea. Arratian be badauka bere taldetxoa eta BEGITU euretako kide bigaz egon da.

Mandarina, sagar, kiwi eta bestelako fruta artean topau doguz Aritz Undarraga eta Irati Urien.

Erredakzioa**Zukgua berbea hitz-joko bat da, ezta?**

Irati Urien: Bai. Berbeak zati bi daukaz. Batetik "Zuk" eta bestetik "Gua". Lehenengoak norbanakoa adierazo gura dau, eta bigarrenak kolektiboa. Jokoa horixe dago orduan, gutako gazte bakotxatik, gazteok osotuten dogun kolektibora goazela adierazo gura dau berbeak. Bide batez, "zukgua" "zukua" bihurtuten da eta hortik datoz ikur diran fruta zein zumoen irudiak.

Ze izakera daukie Zukgua-ko gazteak?

Aritz Undurraga: Orokorrean zabala. Ondo etorria da datorren edozein eta beragaz dakarzan ideak. Baina beti be helburu baterako bidean lanerako eta konpromisorako prest dagoana.

Noz hasi da prozesu hau eta noz arte iraungo dau?

A.U.: Prozesua hasi aurretik, gazteok antolatuten hasi ginan pentsetan gendualako eta konturatu ginalako tresna bat behar genduala gure helburuak lortuteko eta gure ideak aldarrikatuteko. Orduan, gazte antolakunde

baten beharra egoala ikusi genduan eta gazte antolakunde bat sortutea ez da egun bateko gauzea. Hori dala eta, prozesu landu bat behar zan horraino helduteko. Prozesu eratzaile hori Gazte Zukgua da.

I.U.: Urri lehenengoaren 29an Zarautzen egin zan aurkezpena eta Arratiatik be dozena bat gazte joan ginan. Iraupena, gazte antolakunde barria sortu artekoa izango da, laster. Martiaren 2an kongresua egongo da.

Hiru bloketan banatuten da. Zelan daroazuez?

A. U.: Egia esan ez dogu euki espero genduan besteko harrerea. Jente kopuruari jagokonez, ez da oso handia baina pozik gagoz oso aberasgarria dalako. Asko ez

bada be ikusi dogu badagozala Arratian gazte konprometiduak, beharrerako gogoia eta ilusinoa daukienak. Orain hirugarren blokeko azkenengo zatian gagoz eta aurrekoetan hurreratu ez diranai be deialdia egiten deutsegu animetako, benetan merezidu daualako eta oso garrantzitsua dalako.

Gazte antolakunde barri horrek zer ekarriko dau?

I.U.: Ikusiko da. Badakiguna da militantzia eredu barri bat ekarriko dauana, ahalik eta jente gehien bildu gura dauana. Honezker Danbada martxan dago. Honek emongo deutso gazte antolakunde barriari ondo etorria.

Zer da Gazte Danbada?

I. U.: Gazte antolakunde barria-

ren jaiotzako jaialdia izango da. Martiaren 29, 30, 31 eta apirilaren 1ean ospatuko da eta sano egitarau interesgarria ekarriko dau. Iheskide taldeak egin dau kantea, bideoa interneten ikusi daiteke.

Zorroztarrie bloga be jaijo da. Zer deritxazue horri?

A. U.: Sano idea polita irudituten jaku eta beharrezkoa. Izan be, sarritan igarri da Arratiako gazteon arteko komunikazio faltea, eta orain, aukera ona izan leike egiten diran ekintzen barri jakiteko eta danon artean gauzak sortuteko. Gu be Zorroztarren parte gara, gure lekutxo daukagu eta espero dogu gazteak erabiltea, gazteok inoz baino batuago egon behar dogulako.



**ZORIONAK
ETA URTE
BARRI ON!!!!**

ARRATIako MERKATARIEN ELKARTEA
www.arratia-merkataria.com